



Berrizalea

Euskal Etxea Barcelona

Placeta Montcada 1-3



noticies | berriak

Martxoaren 24tik aurrera Zinemaldia 2006 Euskal Etxean



Iban Garate aktorearen partehartzearikin hasiko da, Aupa Etxebeste filma emango den egunean.

Urtero Euskal Etxean euskal kultura jorratzen duten zenbait jardunaldi egiten dira (EH SONA, LITERAL DIA...). Aurten Zinemaldia 06 egingo da lehen aldiz; martxoak 24tik apirilak 1era doazen euskal zinemari buruzko jardunaldiak. Hauek dira ekitaldiak:

Ost24mar20.00 "TXOTX" (1997) eta "AUPA ETXEBESTE" (2005) (Telmo ESNAL ta Asier ALTUNA)

Ast27mar20.00 "SOL DE MEMBRILLO" (1992) (Victor ERICE)

Ast28mar20.00 "MAITÉ" (1994) (Jorge Perugorria, euskaraz)

Ast29mar20.00 Bartzelonako euskara ikasleek eginiko bideoen lehiaketa

Ost30mar20.00 "MIRINDAS ASESINAS" (1991) eta "ACCIÓN MUTANTE" (Àlex de la Iglèxia, 1993)

Ost31mar18.00 HAURREN TXOKOA. DORAEMON, haurrentzako filma (euskaraz).

20.00 Mai Ingurua "Euskal Zinemaren Etorkizuna"

22.00 SAN FERMIN '78 (2005, Juan GAUTIER eta José Àngel Jiménez)

Lar1abr18.00 Euskal laburmetraien emanaldia eta jaialdi bukaerako festa

ZNMLD'06 martxoaren 24etik apirilaren 1era izango da, sarrera doanik izango delarik.

noticies | berriak



Bertso-Eskola Bartzelonan

2 astetik behin Euskal Etxean bertan izango da

Bartzelonako Euskal Etxeak proiektu berri bat jarri nahi du martxan. Bertso-eskola bat Bartzelonan hain zuzen. Hasteko, bertso tailer bat antolatuko da, ostiralero hamabostean behin, gure kultur gunean egingo dena. Kurtsoaren lehen eguna martxoak 17 izango da, 19etatik 21etara, Miren Artetxe bertsolariak gidatua. Prezioa, gure tailerretan ohikoa, 15 bazkideentzat eta 35 bazkide ez direnentzat. Izen ematen hazi zaitezkete, bai Zabalgune Dendan, bai Idazkaritzan.



:: Laburrak ::

Urtebete Asierrikgabe

Otsailaren 10ean bete zen urte bete Euskal Etxeko bazkide eta guztion lagun Asier Burgaleta atxilotu zutenetik. Asier Aranjuezez dago, epaiketaren zai. Urtebete beranduago ere, bere askatasuna eskatzen jarraitzen dugu

TATen 2005eko Urtekaria

El próximo jueves 23 de marzo se presentará en Euskal Etxea la última edición del nuevo anuario que, cada año, elabora el TAT, Torturaren Aurkako Taldea, sobre la realidad de la tortura en nuestro país. En este mismo ámbito cabe destacar que nuestro centre también colaboró en las recientes jornadas para la prevención de la tortura celebradas en el Colegio de Abogados de Barcelona los pasados 3 i 4 de febrero.

Nafarroa Oinez 2006

Jakin ezazue, jada erosi dezakezuela Nafarroa Oinez' 06ko materiala Zabalgunen. Nafarroako ikastolen alde egiten den festa hau, aurten urriak 15ean ospatuko da Beran. Denetik daukagu, boligrafoak, pinak, giltzariak...

Txokobizibizirik

Txokoa etengabe dabil ekintzetan burubelarri. Lumagorri festaren arrakastaren ondoren (saria Oscar Hernandezek irabazi zuen), homofobiaren eta diskriminazio sexualaren aurkako talde iraunkor bat eratzea erabaki dute bertako partaideek.



Martxoak 10

Euskal Etxeko txistulariez alaitua

Datorren ostiralean, martxoak 10, Afari Sozial berezi bat egingo da. Bertan, Otsailak 17, 18 eta 19ko asteburuan jokatu zen "Euskal Etxea" Mus Txapelketako sari banaketa egingo da. Hau da 21.30tik aurrera dastatuko duzuen menua:

Rissoto Krematsua eta txibia bere tintan >> Txekor Masaila >> logur bizkotxoa
Ardoa, kafea eta patxarana

Dena 12 eurotan Euskal Etxeko bazkide direnentzat, eta 18 eurotan bazkide ez direnentzat. Dakizuenetz, zuen lekua alde aurretik hartzeko, martxoak 8, asteazkena baino lehen deitu behar da 93.310.22.00 telefono zenbakira. Justifikatutako arrazoi bategatik bada, menuan aldaketaren bat egin ahal izango, betiere, alde aurretik, erreserba egiterakoan aipatuz gero.

Cultura | Kultura




Sagarrondotik '06

Euskal Etxeak autobusa antolatu du Hernanin ospatuko den festa erraldoi honetara

Bueltan da SAGARRONDOTIK jaialdia!! Eta ohitura den bezala, asteburuko bidai antolatuko dugu bertan ospatzen diren ekitaldi eta kontzertuetaz gozatzeko. Autobusa martxoak 17, ostirala, arratsaldeko 18etan abiatuko da França geltokitik eta, igande 18an bueltatuko da Bartzelonara gaueko hamarrak inguru. Bidaia 45 balio du bazkide direnentzat eta 50 bazkide ez direnentzat. Kontzertuetara joan nahi izanez gero, zuen kaxa erosi beharko dituzue sarrerak Halere, Zabalgunen eros ditzakezue, alde aurretik, larunbaterako sarrerak 21 eurotan eta, bi egunetarako bonoa 36 eurotan. Bidaian izen emateko ezinbestekoa da Zabalgunen ticketa jaso eta bertan ordaintzea. (Astelehenetik ostiralera 17etatik 21etara eta larunbatetan 10etatik 13etara). Lekua mugatua da, beraz, komeni da lehenbailehen izen ematea!

www.sagarrondotik.org



Ostirala 17, 21.00etatik aurrera
THC * Sorkun
Loquillo * Chambao
O'Funk'illo

Larunbata 18, 21.00etatik aurrera
Morodo & Ranking Soldiers
Berri Txarrak * Celtas Cortos
Living Colour * Betagarri

“Euskal Etxea” Mus Txapelketa

Andres Fernandez eta Iñaki Insausti bazkideak izan ziren txapeldunak

Otsailak 17, 18 eta 19ko asteburuan "Euskal Etxea" Mus Txapelketa jokatu zen gure kultur gunean. Aurtengo txapelketan Andrés Fernández eta Iñaki Insausti izan dira garaile, Iñigo Aretxaga eta Iker Amas bigarren postua lortu dutelarik. Martxoko afari sozialean emango zaizkie sariak gure bi bikote irabazleei. Eta espero dezagun Bartzelonan datorren udaberrian jokatu den estatu-mailako txapelketan zorte berbera edukitzea, eta gurera ekartzea txapel pare hau ere!

Lan Taldea 18/98



defentsan eskubidezibileta politikoaren



Bazkideen azken batzar orokorrean onartutakoaren arabera, Euskal Etxean talde iraunkor berri baten lanari egoitza ematea erabaki zen: Bartzelonako 18/98+ lan taldea.

Mariano Ferrer kazetaria bozeramaile duen talde euskalduna azaroaren 21etik epaitzen ari diren guztien defentsan osatu zen. Talde hau Euskal Etxeari lotua dagoen hirugarrena izango da, Bartzelonako Elkarri eta Plataforma per Egunkariarekin batera. Talde honek, Euskal Etxearen lankidetzarekin, otsailaren 17an debate ireki bat antolatu zuen bertan Martxelo OTAMENDI, Teresa TODA, August GIL MATAMALA eta Gemma CALVETek parte hartu zutelarik. Makroepaketaren inguruan antolatu ziren ekintzen barruan zegoen debate honetan 200 pertsona inguruk hartu zuten parte eta CCCBn ospatu zen.

Taldeak Vilaweben du kokatua epaketaren jarraipena egiten duen weblog-a

www.blocs.vilaweb.cat
www.18-98plus.org

Taldeari lagundu nahi izan ezkerre, Euskal Etxean dituzuen 10 eta 20 eurotako bono laguntzak. Diru hau dituzten epai gastu izugarrietan laguntzeko erabiliko da.

